

## Caro Baroja eta amorrua

Deia, 1977-08-17.

Caro Baroja guretar, gure herriko dugu aspaldi.

Ba dira euskaldun izateko bideak. Bat, lur hontan jaiotzea; ez da berez meritu handirik egin behar hontarako, eta ez du honek, berez inolako pribilejiorik merezi. Bigarrena, beste nonbait jaio eta gure artera bizitzera etortzea; merituak aparte. Eta hirugarren, sortzez hemengo izan gabe, aspaldidanik hemengo diren ispirituak eraginda honeratu eta lanez eta kezkez eta sufrimenduz hemengo egin zaigun euskalduna.

Esate baterako, don Julio Caro Baroja bera.

Ez dakit honek *El País*-en idatzi berriak dituen bi idazlan ("Con un poco de ira", 27/28-7-77) zenbat euskaldunek irakurriko zituen. Hemen esaten du idatzi duen erdia baino gehiago gai euskaldunei dagokiola. Zor diogu honenbeste, eta erdi; egin duen lana maitasunez betea baitago. Euskaldunok izango ditugu hontan, idatzi duenaz, objezio bat edo beste, batzuk, puristek, bestelako geranok baino gehiago.

Baina hemen egin nahi dutan aipamena ez da hontaz.

Caro Baroja aitatzten duen amorruaz da.

Eta ez amorru hortaz beraz.

Don Julio-k aitatzten duen amorrua, gazteleraz euskaldunen eta katalanen eta galegoen eta andaluzen aurka esan direnak erakusten dutena da. Eta egia hau nabarmena da.

Hau euskaldunok ondo ezagutzen dugu.

Baina ba da guk gure artean dugun eta maiz erakusten dugun beste amorru bat, eta hau anai artekoa, tribala. Hontaz ere behar dugu gure artean eta euskeraz, barrukoi izan behar duen azterketa gisa, katarsis antzeko modu batera, zerbait esan, eta egin.

Ba dugu beharra.

Aho edo idazbidez esaten ditugun hitzak integrisimo osoan epaitzekotan jartzen gara berehala.

Beste euskaldunentzat aho betez eskatzen ari garen Amnistia apur bat behar genuke guk denok gure artean eskeini, eta eman.

Caro Baroja-renak honetararte ekarri nau gaur.

Merezi zuen aipamena.

Eta gainontzekoen gaitzak aipatzerakoan erraz etortzen zaizkigu gure ditugunak.

Kalte izugarria egiten ari zaizkigunak.

Hoietakoa bat, euskaldunok setakeriaz, bekaizkeriaz eta askotan hutsaren hutsez erakusten ditugunak.

Behar ditugu arrazoiz aztertu.

Hoiek dira-ba, don Julio Caro Barojak aitatu dituen amorruak, eta hoiek gogora ekarri dizkidan beste gure batzu.

Sendagairik ba lego.